

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

3

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

34/2014 FORU DEKRETUA, urriaren 21ekoa, desgaituentzako laguntza-txakurren erregistroa sortzen duena eta laguntza-txakurrak halakotzat egiaztatzeko prozedura ezartzen duena.

Eusko Legebiltzarrak 2007ko ekainaren 29an 10/2007 Legea onetsi zuen, ahalmen urrituentzako laguntza-txakurrei buruzkoa. Honako hau da lege horren xedea: beren desgaitasuna dela eta, laguntza-txakur baten laguntza behar duten pertsona guztiei aitortu eta bermatzea erabilera publikoko edozein toki, establezimendu edo garraiotan txakurrekin sartzeko, ibiltzeko edo egoteko eskubidea.

Lege horretako 3.4 artikulua arabera, foru aldundiak dagokie, zein bere lurraldean, txakurrei laguntza-txakurren aitortu ematea eta txakur horiek identifikatzea, baita dagokien egiaztatzea lortzeko prozedura ezartzea ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, AEPA-Euskadi laguntza-txakurren elkarrekin aritzen da laguntza-txakurrekin lanean eta haiek hezten, eta esperientzia handia eta fidagarritasun aitortua ditu arlo horretan. Horrez gainera, ONCEren itsu-txakurren fundazioak (FOPG) lan handia egiten du Espainiako Itsuen Erakunderako itsu-txakurrak hezten; beraz, aitortutako fidagarritasuna du arlo horretan.

Beste aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparru organiko eta funtzionalaren ikuspuntutik hartuta, gai hori Gizarte Politikako Departamentuaren arlokoa da, departamentu horrek lotura zuzena baitu desgaituei arreta ematen dien alorrekin.

Desgaituek arreta hobe eta aurreratuagoa jaso dezaten, foru dekretu honetan zera arautzen da: Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta dauden eta bizi diren desgaituentzako laguntza-txakurrak nola aitortu eta identifikatu behar diren eta txakur horiek halakotzat jotzeko prozedura zein izango den.

Foru dekretu honetan jasota daude legeak desgaituentzako laguntza-txakurrak halakotzat jotzeko jartzen dituen baldintzak.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Laguntzako Animaliak Identifikatzeko Erregistroa dagoenez, Gizarte Politikako Departamentuak Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailaren laguntza izango du eginkizun horiek garatzeko.

Bat etorri 1983ko azaroaren 25eko Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundeak eta bertako lurralde historikotako foru organoen arteko harremanei buruzkoak, 7.c.1 artikuluan xedatutakoarekin, lurralde historikotako foru organoek dagokien erakunde erkideetako legedia gauzatzea gizarte laguntzaren alorrean.

Horregatik, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran alde aurretik eztabaidatu eta onartu ondoren,

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 34/2014, de 21 de octubre, por el que se crea el Registro de perros de asistencia para la atención a personas con discapacidad y se establece el procedimiento para su acreditación.

El Parlamento Vasco aprobó la Ley 10/2007, de 29 de junio de 2007, de Perros de Asistencia para la Atención a Personas con Discapacidad, con el objeto de reconocer y garantizar a toda persona que, como consecuencia de su discapacidad, sea acompañada de un perro de asistencia, el derecho a acceder, deambular y permanecer con él en cualquier lugar, establecimiento o transporte de uso público.

De acuerdo con el artículo 3.4 de la citada Ley, corresponde a las Diputaciones Forales en el ámbito de sus respectivos Territorios el reconocimiento y la identificación de los perros de asistencia, así como establecer el procedimiento a seguir para su acreditación.

En la Comunidad Autónoma de Euskadi el trabajo y adiestramiento de perros de asistencia viene desarrollándose por la Asociación de Perros de Asistencia AEPA-Euskadi, entidad con amplia experiencia y acreditada solvencia en la materia. Asimismo, la Fundación ONCE del Perro-Guía (FOPG) realiza una importante labor en el adiestramiento de perros guías para la Organización Nacional de Ciegos (ONCE) teniendo, por tanto, acreditada solvencia.

Por otra parte, en lo que se refiere al marco orgánico y funcional de la Diputación Foral de Gipuzkoa, esta materia corresponde, por su directa relación con la atención a personas con discapacidad, al Departamento de Política Social.

Con el fin de mejorar y avanzar en la atención a aquellas personas con discapacidad, el presente decreto foral regula el reconocimiento y la identificación de los perros de asistencia para la atención a personas con discapacidad empadronadas y residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como el procedimiento a seguir para su acreditación.

El decreto foral incorpora los contenidos de la ley en cuanto a los requisitos exigidos para el reconocimiento de la condición de perro de asistencia para la atención a personas con discapacidad.

Por último, dada la existencia de un Registro de Identificación de Animales de Compañía de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el desarrollo de estas funciones, el Departamento de Política Social podrá contar con la colaboración del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 7.c.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, corresponde a los Órganos Forales de los Territorios Históricos la ejecución de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de asistencia social.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Política Social, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Gaia.

Foru dekretu honen gaia da arautzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko esparruaren barruan, desgaituentzako laguntza-txakurrak halakotzat nola aitortu eta identifikatuko diren eta txakur horiek halakotzat egiaztatze prozedura zein izango den, 2007ko ekainaren 29ko 10/2007 Legeak, ahalmen urrituentzako laguntza-txakurrei buruzkoak, 3.4 artikuluan eta baterako-urretan xedatutakoa betez.

2. artikulua. Desgaituentzako laguntza-txakurrak erregistrarzea.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari atxikita, Desgaituentzako Laguntza-txakurren Erregistroa sortu da.

Gizarte Politikako Departamentuak, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zerbitzuaren bidez, desgaituentzako laguntza-txakurrak inskribatuko ditu erregistro horretan, eta laguntza-txakur bakoitzaren identifikazio liburuxka egingo du, foru agindu bitartez xedatutakoa betez.

2. Desgaituentzako laguntza-txakur bat halako bezala aipatutako erregistroan inskribatua izan dadin, pertsona interesatuak eskaera orria aurkeztu behar du, onartuko den ereduaren arabera ondo betea, eta dokumentazio hau aurkeztu behar du eskaerarekin batera:

a) Nortasun agiriaren kopia edo, bestela, eskatzailearen nortasuna legez egiaztatzen duen beste edozein agiriarena.

b) Eskaera egunean Gipuzkoako Lurralde Historikoko erroldatuta egotea egiaztatzen duen ziurtagiria, egiazko bizilekua egiaztatzen duten agiriez gain.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) erregistratuta dagoenaren ziurtagiria.

Pertsona batek Gizarte Politikako Departamentuari baimena ematen badiu b) eta c) letretan zehaztutako baldintzen egiaztapena beste administrazio batzuetan eskuratzeko, hark ez du aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharrik izango.

d) Eskatzailearen argazki bat.

e) Txakurraren argazki bat.

f) Edo AEPA-Euskadi laguntza-txakurren elkartearen ziurtagiria, edo ONCERen itsu-txakurren fundazioarena (FOPG), edo Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortutako estatu edo nazioarteko beste erakunde batena, laguntza-txakurrak hazteko kaudimen onartua badu. Ziurtagiri horretan egiaztatu behar da, orobat, txakurrak jaso duela desgaituei konpainia egiteko, laguntzeko eta haiek gidatzeko eskatzen den trebakuntza, eta titular eskatzaileak baduela aski prestakuntza eta jakintzarik txakurrak konpainia egin diezaion, lagundu diezaion eta gida dezan.

g) Albaitari baten ziurtagiria, non egiaztatuko den legeak eskatutako baldintza higieniko eta sanitarioak betetzen direla.

h) Hirugarrenenok paira ditzaketen kalteei erantzuteko, erantzukizun zibeleko poliza bat izenpetu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.

i) Desgaitasun maila aitortzeko ziurtagiria.

Pertsona batek aitortua badu eskatzen den desgaitasun maila, eta aitorten hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuan badago edo beste administrazioaren bidez eskuratzeko baimena ematen bazaio, pertsona horrek ez du aurreko dokumentazioa aurkeztu beharko.

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

Es objeto del presente decreto foral regular, en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el reconocimiento y la identificación de los perros de asistencia para la atención a personas con discapacidad, así como el procedimiento a seguir para su acreditación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 3.4 y concordantes de la Ley 10/2007, de 29 de junio, sobre Perros de Asistencia para la atención a Personas con Discapacidad.

Artículo 2. Registro de Perros de Asistencia para la atención a personas con discapacidad.

1. Se crea el Registro de Perros de Asistencia para la atención a personas con discapacidad dependiente del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El Departamento de Política Social, a través del Servicio de Atención a la Dependencia y la Discapacidad, inscribirá en este Registro los perros de asistencia para la atención a personas con discapacidad y extenderá la cartilla identificativa de Perro de Asistencia para la atención a personas con discapacidad conforme a lo dispuesto en la orden foral que se dicte al efecto.

2. Para la inscripción en el citado registro de un perro como Perro de Asistencia para la atención a personas con discapacidad, la persona interesada deberá presentar debidamente cumplimentada la hoja de solicitud, de acuerdo con el modelo que se apruebe al efecto, acompañando a la misma la siguiente documentación:

a) Fotocopia del D.N.I. vigente, o, en su defecto, de cualquier otro documento legalmente acreditativo de la personalidad de la persona solicitante.

b) Certificado de empadronamiento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa en el momento de su solicitud, además de los correspondientes documentos que acrediten la residencia efectiva.

c) Certificado de inscripción en el Registro General de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (REGIA).

Aquellas personas que autoricen al Departamento de Política Social a obtener la acreditación de otras administraciones de los requisitos señalados en las letras b) y c) no habrán de aportar tal documentación.

d) Una fotografía de la persona solicitante.

e) Una fotografía del perro.

f) Certificado de la Asociación de Perros de Asistencia AEPA-Euskadi, de la Fundación ONCE del Perro-Guía (FOPG) o de otra entidad de ámbito estatal o internacional reconocida por la Diputación Foral de Gipuzkoa con reconocida solvencia en el adiestramiento de perros de asistencia, acreditando que el perro a registrar ha recibido el adiestramiento que se precisa para acompañamiento, conducción o ayuda a personas con discapacidad, así como que la persona titular solicitante tiene la formación y conocimientos suficientes para ser acompañada, conducida o apoyada por el perro.

g) Certificado veterinario que acredite el cumplimiento de las condiciones higiénico-sanitarias señaladas en la ley.

h) Certificado de tener suscrita una póliza de responsabilidad civil que cubra los eventuales daños a terceras personas.

i) Certificado de reconocimiento de grado de discapacidad.

Aquellas personas que tengan reconocido el grado de discapacidad necesario y que obren en poder del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa o se autorice a ésta a obtenerlos desde otras administraciones no habrán de aportar tal documentación.

3. Era berean, Laguntza-txakurren Erregistro Osagarria sortu da prestakuntza aldian dauden txakurrentzat. Erregistro horretan sartzeko baldintzak izango dira aurreko puntuan adierazitakoak, f) letrako baldintza salbu. Izan ere, baldintza horretako ziurtagiriaren ordez, AEPA-Euskadi elkarteak, FOPG fundazioak edo kaudimenen aitortuko beste erakunde batek emandako ziurtagiri bat aurkeztuko da, non egiaztatuko den txakur erregistratua prestakuntza aldian dagoela eta ziurtagiria egin duenak kontrolatzen eta gainbegiratzen duela.

3. artikulua. *Desgaituentzako laguntza-txakurrak erregistratzea eta Laguntza-txakurraren Txartela egitea.*

Behin eskaera jaso eta dokumentazioa eta, behar izanez gero, txakurraren identifikazioa egiaztatzen direnean, administrazioari ebazpena emango da txakurra desgaituentzako laguntza-txakur gisa aitortu eta haren erregistroa baimentzeko eta laguntza-txakurraren txartela emateko, helburu horretarako onartuko den ereduaren arabera. Txartel horretan, titularrak gauza hauek erregistratu behar ditu:

– Albaitariaren sei hileko kontrolak, ekainaren 29ko 10/2007 Legeak eskatu bezala.

– Erantzukizun zibileko aseguruaren indarraldia eguneratua dagoela adierazten duen kontrola.

Txartelak bost urteko balioa izango du; aldi hori igarota, titularrak bere txartela berritu beharko du Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zerbitzuan eta administrazioari ebazpena emango da.

Txartelaren balio aldia igaro eta hura berritzea ez bada eskatzen, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zerbitzuak gora-behera horretaz ohartaraziko dio titularrari, eta adieraziko dio ezen, jakinerazpena jaso eta hurrengo hamabost egunen barruan ez badu txartela berritzen, txakurrak desgaituentzako Laguntza-txakurraren izaera galduko duela eta erregistroan baja emango zaiola, hurrengo artikuluan adierazten dena betez.

4. artikulua. *Desgaituentzako laguntza-txakurraren izaera galtzea.*

1. Kasu hauetakoren bat gertatuz gero, Gizarte Politikako Departamentuak adieraziko du delako txakurrak desgaituentzako laguntza-txakurraren izaera galdu duela, eta baja emango dio Laguntza-txakurren Erregistroan:

a) Erabiltzaileak ez badu desgaituentzako laguntza-txakurraren txartela berritu, behin igarota 3. artikuluko azken paragrafoko jakinarazpenean adierazten den epea.

b) Egiaztatzen bada erabiltzaileak txakurrari ez diola sei hileko azterketa egin.

c) Egiaztatzen bada hirugarrenen kalteak babesten dituen erantzukizun zibileko poliza ez dagoela indarrean.

d) Albaitari batek ziurtatuta, txakurrari nabarmentzen bazaio ez dela gai bere lana egiteko, edo moduren batean portaera oldarkorra erakusten badu, eta txakurra gainbegiratzeko ardura duen erakunde aitortuak hori gutzia ziurtatzen badu ikus-onetsi edo txosten bidez.

e) Txakurrarengan tratatu txarrak nabarmentzen direnean, ebazpen administrazioaren bidez edo ebazpen judizialaren bidez zigortutakoak, 1993ko urriaren 29ko 6/1993 Legeak, Animalien Babesari buruzkoak, ezarritakoaren eta aplikagarria den gainontzeko arautegiak xedatutakoaren arabera.

2. Instrukzio-izapidea egin ondoren hartuko da laguntza-txakurraren izaera galtzea eta erregistroan baja ematea adierazten duen ebazpena. Instrukzio hori erabiltzaileari eta txakurra gainbegiratzeko erakunde aitortuari jakinaraziko zaie eta epe

3. Se crea asimismo, el Registro Auxiliar de Perros de Asistencia para aquellos perros en período de formación, siendo los requisitos para acceder al mismo los mismos que los descritos en el punto anterior, salvo la letra f) que se sustituirá por un certificado extendido por AEPA-Euskadi, la FOPG u otra Entidad de reconocida solvencia, acreditando que el perro registrado se halla en período de adiestramiento y que está bajo su control y supervisión.

Artículo 3. *Inscripción y extensión de la Cartilla de Perro de Asistencia para la atención a personas con discapacidad.*

Recibida la solicitud y comprobada la documentación, así como, en su caso, la identificación del perro, se procederá a través de resolución administrativa al reconocimiento y se autorizará el registro del perro como Perro de Asistencia para la atención a personas con discapacidad y la extensión de la cartilla de Perro de Asistencia, según modelo que será aprobado a al efecto y, en la que la persona titular de la misma deberá ir registrando:

– Controles veterinarios semestrales exigidos en la Ley 10/2007, de 29 de junio.

– Control de la vigencia actualizada del seguro de responsabilidad civil.

La cartilla tendrá validez de 5 años, tras los cuales la persona titular procederá a su renovación en el Servicio de Atención a la Dependencia y la Discapacidad, dictándose al efecto resolución administrativa.

Transcurrido el período de validez de la cartilla sin haberse solicitado su renovación, el Servicio de Atención a la Dependencia y la Discapacidad se lo advertirá a la persona titular, con indicación de que si transcurridos quince días desde la recepción de la comunicación no lo hiciera se declarará la pérdida de la condición de Perro de Asistencia para la atención a personas con discapacidad y la baja en el Registro, conforme a lo previsto en el artículo siguiente.

Artículo 4. *Pérdida de la condición de perro de asistencia para la atención a personas con discapacidad.*

1. El Departamento de Política Social declarará la pérdida de la condición de perro de asistencia para la atención a personas con discapacidad y dará de baja al mismo en el Registro de Perros de Asistencia en los siguientes casos:

a) Cuando la persona usuaria no haya renovado la Cartilla de Perro de Asistencia para la atención a personas con discapacidad, transcurrido el plazo señalado en la notificación a que se refiere el último párrafo del artículo 3.

b) Cuando se compruebe que la persona usuaria no ha realizado el reconocimiento periódico semestral del animal.

c) Cuando se compruebe que la póliza de responsabilidad civil que cubra los eventuales daños a terceras personas no se encuentra vigente.

d) Cuando el perro de asistencia manifieste incapacidad para el ejercicio de su labor o algún tipo de comportamiento agresivo, según certificado veterinario y dicha causa haya quedado acreditada mediante visado o informe de la entidad reconocida que sea responsable de la supervisión del animal.

e) Cuando se evidencien maltratos sobre el perro, sancionados por resolución administrativa o sentencia judicial, de acuerdo con la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales y con el resto de normativa aplicable.

2. La resolución que declare la pérdida de la condición de perro de asistencia y la baja en el Registro se dictará previa instrucción de expediente, que se notificará a la persona usuaria y a la entidad reconocida responsable de la supervisión del ani-

bat jarriko zaie, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hamar eguneko epean beren alegazioak egin ditzaten edo omisioa zuzendu dezaten.

Xedapen gehigarri bakarra.

Kaudimen aitortutako erakunde espezializatuak.

Dekretu honen ondorioetarako, kaudimen aitortuko erakunde espezializatuak hauek izango dira: AEPA-Euskadi laguntza-txakurren elkartea eta ONCEren itsu-txakurren fundazioa (FOPG).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak elkarre edo federaziotako beste zentro batzuk ere kaudimen aitortuko erakunde gisa har ditzake, baldin eta laguntza-txakurrak trebatzen kalitateko estandar egokiak bermatzen badituzte. Aitorpen espediente hasi daiteke edo erakunde interesatuaren eskariz, edo ofizioz, baldin eta aitortu gabeko erakunde batek emandako laguntza-txakur bat halakotzat aitortzea eskatzen bada. Espediente horretan kontsulta egingo zaie Gipuzkoako Foru Aldundiaren aintzatespena jadanik duten erakundeei.

Xedapen iragankor bakarra.

Foru dekretu hau indarrean sartu aurretik egin diren eskaerak.

Foru dekretu hau indarrean sartu aurretik izapidetu diren eta ebazteke dauden eskaerak foru dekretu honetako prozeduraren arabera ebatziko dira, behin egiaztatuta 3. artikuluko baldintzak betetzen eta egiaztatzen dituztela.

Amaierako Xedapenak.

Lehena. Gaikuntza.

Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan xedatutakoa gauzatzeko behar diren egintza eta xedapenak erabaki ditzan.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 2014ko urriaren 21a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

GIZARTE POLITIKAKO
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Ander Rodriguez Lejarza.

(9532)

mal, concediéndoles un plazo de diez días a partir del día siguiente al de su notificación para formular alegaciones o subsanar la omisión.

Disposición adicional única.

Entidades especializadas de reconocida solvencia.

A efectos de este decreto foral tendrán la consideración de entidades especializadas de reconocida solvencia la Asociación de Perros de Asistencia AEPA-Euskadi y la Fundación ONCE del Perro- Guía (FOPG).

El Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá reconocer como entidades de reconocida solvencia a otros centros pertenecientes a asociaciones o federaciones que garanticen estándares de calidad adecuados en el adiestramiento de perros de asistencia. El expediente de reconocimiento podrá iniciarse a instancia de la propia entidad que lo solicite o de oficio cuando se reciba la solicitud de reconocimiento de un perro de asistencia entregado por una entidad no reconocida. En este expediente se consultará a las entidades que ya cuenten con reconocimiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Disposición transitoria única.

Solicitudes presentadas antes de la entrada en vigor de este decreto foral.

Las solicitudes tramitadas con anterioridad a la entrada en vigor del presente decreto foral que estén pendientes de resolución, una vez comprobados el cumplimiento y la acreditación de los requisitos establecidos en el artículo 3, se resolverán siguiendo el procedimiento establecido en el presente decreto foral.

Disposiciones finales.

Primera. Habilitación.

Se faculta a la persona titular del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa para dictar las disposiciones y actos necesarios para la ejecución de lo dispuesto en el presente decreto foral.

Segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 21 de octubre de 2014.

EL DIPUTADO GENERAL,
Martin Garitano Larrañaga.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
POLITICA SOCIAL
Ander Rodriguez Lejarza.

(9532)